


BERRIGARA

93. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1995, maiatzak 26



**UDAL
HAUTESKUNDEAK
igandean bozketak**

Zinea bizirik



Bergararen onerako.

Eman Botoa  **EAJ
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna

XAMARTIN KIROLAK

Kirola eziteko behar den guztia

Ibargarai, 20 ☎ 76 59 29



○ Txandalak, kamisetak,
bainujantziak, zapatilak...

○ Futbol, pelota, ehiza, arrantza
eta mendirako arropak.

○ Kirole markarik onenak:
**NIKE, AVIA, TRANGO, REEBOK,
LIBERO, MITO, ADIDAS...**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga
Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola

Maripi Laskurain
Alex Labaien
Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro

Banaketa:

Txantxangorri taldea
Tirada:
3.900 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
Copyright:
BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91
ISSN:
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

YOSUNE LINAZISORO Udal Kirol Zerbitzuko zuzendaria

- Noiz zabalduko dira kanpoko igerilekuak?

- Ez dakigu ziur baina ekainaren erdialderako zabaltea espero dugu. Orain "Riego automático por aspersión" delako sistema jartzeko obrak egin dira. Aurreko urtean belarra egoera txarrean geratu zen, nahiko sikua eta ureztatzeko metodo hobe jartzea beharrezkoa zen. Lanekin amaitu bezain laister, lehenbizi eguzkia hartu nahi dutentzat zabalduko dira igerilekuak eta zertxobait geroago guztientzat.

- Kanpoko zein barruko igerilekuak ezin dira biak batera zabalik izan?

- Ez dugu igerilekuen osasunketa alorreko arau-



tegia betetzen. Horren arabera, igerileku bakoitzak aldagela propioak izan behar ditu eta, horrez gain, ez dugu eskatzen den ur filtraziorako sistema egokia.

- Arautegi hori bete zeko asmorik?

- Proiektu bat badago aspalditik baina ez dakit noiz burutuko den. Politikoen esku dago.

"Kanpoko igerilekuak ekainaren erdialdera zabalteko asmoa daukagu"

I T U R R I O N E T I K

Turismo bulegoa irekiko da berriz ere uda partean

Aurreko Aste Santuan egin zuen moduan, Udalak turismo bulegoa irekiko du udan, uztailaren 3tik irailaren 4ra bitartean. Zerbitzua adjudikatzeko egingo den lehiaketarako baldintza pleguak datorren astetik aurrera jaso ahal izango dira Udaletxean, 8etatik ordubatera. Interesatuak ekainaren 15era arte izango dute beren dokumentazioa eta eskeintza aurkezteko aukera. Udan egunero izango da zabalik turismo bulegoa (goizez 2 ordu eta arratsaldez hiru) eta bi bisita gidatu egingo dira, bata goizez eta bestea arratsaldez.

E S A N D U T E

"Ziur nongoen Errandonea txapelkun izango zela Belokiri 15-12 aurreratu zitzaionean. Baina pelotaren aldaketa eta Rubenen amaiera izugarria erabakiorrak izan ziren. Beloki bere merituz da txapelkun. Finala asko gustatu zitzaidan. 15-12ra arte Errandoneak ia dena primeran egin zuen eta Beloki frontisetik urrun izatea lortu zuen baina Belokik bere maila erakutsi zuen partidu amaieran"

AITOR ELKORO
Pelotaria eta Errandonearen botilleroa
EL DIARIO VASCO

"Politikoei alderdiarengatik gutxiago arduratzea eta herriaren beharrei lehentasuna ematea eskatuko nieke. Igandeko hauteskundeetan ateratzen den Diputatu Nagusiari ere gauza bera esango nioke".

KOLDO LASA
Sukaldaria
EL DIARIO VASCO

**PRET A PORTER**

Larunbata: 17.00, 19.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**FORREST GUMP**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Zinea

▼▼ **Robert Altman** zuzendariak (*El juego de Hollywood, Vidas cruzadas*) modaren inguruko filme polemikoa egin du. Bertan sexoa, traizioa eta gutziari buruzko erreflexioak planteatzen dizkigu eta, aurrekoetan bezala, izarrez beteriko erreparto korala osatu du: **Sophia Loren, Marcello Mastroiani, Julia Roberts, Tim Robbins, Kim Basinger, Lauren Bacall** etabar luze bat.

▼▼ Azken *oscarren* edizioan, besteak beste, filme, zuzendari (**Robert Zemeckis**) eta aktore (**Tom Hanks**) onenaren saria irabazi zuen filmea. Autobus geltoki batean eserita, *Forrest Gump*ek bere bizitza kontatuko digu, aldi berean Estatu Batuetako azken 30 urteotako historia ikuspegi inozo, komiko, kritiko eta nostalgiko batetik aurkeztuz.

▼▼ **Pol-Pol Argazki Taldeko** kideek pasa den apirilaren 9an Gorlan izan zen txakur leren lasterketan ateratako argazkiak ikusgai daude Nahikari tabernan. Herriko argazkilariek partaide eta txakurren esfortzua eta probaren inguruko giroa isladatzen saiatu dira beren kolorezko lanetan.

Deiak

▼ **Erakusketa.** Simon Arrieta Zeramika Taldearen erakusketa Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko bajuetan.

▼ **1943an** jaiotako bergararren anaiarteko eguna ekainaren 18an. Ordubatean meza eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea ekainaren 15era arte 76 22 90 (Maher), 76 16 13 (Arantza Askasibar), 76 29 47 (Juanjo Arrieta) eta 76 53 22 (Fernández) telefonoetan.

▼ **Herri bazkaria** Pazkuetan. Izen-ematea Arrano eta Pol-Polen.

▼ **Jon Balentziaga**ren margoak, eskulturak eta zeramika lanak Arrasateko Aita Menni Ospitalean ekainaren 16ra arte.

Ogia

▼ **Igandea 28:** Konde.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 26:** Guallar/Español.
- ▼ **Larunbata 27:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Igandea 28:** Estella/Irizar.
- ▼ **Astelehena 29:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Asteartea 30:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 31:** Puy/Morales.
- ▼ **Osteguna 1:** Guallar.

• **PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA.**
 • **LOGOPEDIA, LOGOFONIATRIA:**
AHOTS, HIZKETA ETA LENGOAIA
ZAILTASUNEN BIRGAITZEA ETA LARINGEA
KENDUTAKOEN BIRGAITZEA.

CEDICO, Koop. Elkartea

Herri Lagunak, 1 behea (Seminarioko patiotik sarrera) ☎ 76 14 80

Kordinatzailea: Jose Luis Irazabal



ESKUALDEKO
ZENTRUA
BERGARA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Moto txikien erakusketa

Zapelaitz motozaleen elkarteak antolatu du zapaturako

Zapelaitz Motorzale Elkarteak antolatuta, moto txikien erakusketa izango da bihar larunbata arratsaldeko 5etatik aurrera Seminarioan. Zapelaitz Elkarteak, motor txiki hauek (lurretik eserlekura 35-40 zm.ko tarte besterik ez dago) azkenaldian izan duten gorakada ikusirik, honelako proba bat herrira ekartzea pentsatu zuen eta bihar hainbat gidarik (nagusiak zein gaztetxoak) erakustaldi bat eskeiniko dute gure herrian.

Nagusietan Donostiatik etorritako 4 motor gidari eta Bizkaiatik etorritako beste 4 arituko dira. Gaztetxoetan, berriz, 4 mutiko izango dira motor txikiekin beren trebezia erakusten. Zapelaitzekoek zirkuitu bat prestatuko dute Seminarioan eta kategoria bakoitzean bizpahiru manga jokatu dira. Jon Ander Egaña Zapelaitzeko kideak esan digunez, "moto txiki hauek oso gutxi ezagutzen dira inguru honetan. Guk Mediterraneo aldean ikusi genuen lehenbizi eta asko gustatu zitzaigun. Orain bemen ere Euskadiko txapelketa



Lurretik eserlekura 35-40 zentimetrotako tarte dute moto txikiak.

jokatzen hasi da eta orain dela hamabost egun txapelketako proba bat (hiru dira guztira) jokatu zen Andoainen. Nobedadea da eta espero dugu jendeak erakustaldiarekin disfrutatzea.

Gainera, proba amaieran, 18 urtetik gorakoek motoekin ibiltzeko aukera izango dute. Hori bai, organizazioa ez da arduratzen gerta daitezkeen istripuez eta motoa hartzen dutenek N.A.N.-

18 urtetik gorakoek motoekin ibiltzeko aukera izango dute bihar Seminarioan

aren zenbakia emari be-barko dute".

Honelako konpetiziorako motoek 9 zaldi t'erdiko potentzia daukate eta 70-80 kilometro orduko abiadura hartzera heldu daitezke. Egañak aipatzen digun moduan, "ez da hain nekeza moto horiek gidatzea, uste baino errezagoa. Kontua da bankak ondo apoiatzea, besterik ez. Beste guztia gainontzeko motoekin moduan. Igandetan Mamuteko aparkalekuan egoten diren moto txiki-en entrenamendutan izan gara noizean behin eta arazorik gabe moldatu gara".

Zapelaitz elkarteak ostegunero bilerak egiten jarraitzen du. 35 bat lagun dira elkartean eta eguraldi ona egiten hasi orduko asteroko irteerak egiteko prest dira. Egañaren hitzetan, "zenbait moto karreratarara ere joan gara baina udan egoten da mugimendu gebiago".

Biharko erakustaldira-ko sarrera doan izango da eta Udalak, probak duen 300.000 pezetako aurrekontua ordainduko du.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Gazteak eta Gaztetxea

Goiko Estazioko Elekrika etxeaz jabetu dira Gaztetxeko gazteak. Horietako bat nire semea da eta nire iritzia eman nahi nuke. Alkateak dioen bezala "por las bravas" egin dute; hobeto ezin zezakeen azaldu. Semeari jarrera horrekin autoritateari errespetuari faltatzen ziotela esan nion.

Nire ustez derrigorrezkoa da gizartea zuzentzeko norbait buru izatea (alderdi politikoak alde batera utziz) eta zerbait esateko edo lortzeko beste era batetako jokaerak erabili beharko lituzkete.

Etxean gora-beherak ez dira falta; 17 urte ditu eta heldugabe bat besterik ez da. Ahal dudan guztia egingo dut nire semea den gazte hau ez dadin arazo bihurtu gure gizartean, bestela behar diren neurriak hartuko ditut.

AMA BAT
 NAN: 15.336.313

Aittu!!

Diotenez, fazismoaren azken garraxiak Frankorekin joan omen ziren, baina badaude oraindik gure herrietan ordungo "Cristo Rey" k egiten zuen bezalaxe, hemengo abertzaleak jipoitzen diharduten sasi gudarixak. Denok dakigu nortzuk diren, Koordinadora Antiabertzale Sozia-

listaren Jarraituak. Aurretik beste makina bat alditan EGI kideak eraso ondoren, oraingoan gure bailaran bota dute euren ekintza errepresiboa, automobil bat errez. Noiz arte onartuko ditugu euskal-gaztediaren gidari direla dioten lau "Kinito" Jarraitxu Faszistoideren eraso ta mehatxuak?

"Ez zarete zuek uste duzuen baina guk badakigu zer zareten".

Aittu, bai?, ba kितto!!

Gora Euskadi Askatuta!!

DEBA GARAICO EGI

Eskerrik asko

Xamatx dantza taldeak eskerrak eman nahi dizkizue maiatzaren 14an ospatu zen Dantzari Egunean zuen laguntza eskaini zenuten guztiei, batez ere K3, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Larrañaga Optika, sukaldari, tabernako arduradun, Udal eta herriko jende guztia-ri.

Espero dugu hurrengo larunbat eta igandean zuen laguntza izatea bai Ukrainiako Dantza Taldearekin eta baita Haurren Egunean.

XAMATZ DANTZA TALDEA

Agintarien baimenarekin...

Aurretik ere bazekigun, baina aurten ikusten ari gara Kultur Batzordeak plaza-ko obrak, aitzaki bezala erabili zituela, Bergarako jaietan "corridak" promozionatzeko. Aurten San Martin plaza libre dago koadrila jokuak biltzeko, zergatik orduan Udalak hain garesti den "corrida plaza" alokatu behar du?


Zergak gora, herriko kultur taldeen-tzat laguntza eskasak eta bitartean, denori burla eginez, milioiak kostako zaizkigun "corrida plaza" bat jarriko digute gure "kultura" arduradunek. Eta hau lotsagarriago egiteko, sarrerak Kultur Etxean salgai ipiniko dituzte. Gure herrian premiazko beharrak ugariak dira; baina esaera zaharrak dioen bezala... "poco pan y mucho toro", krisi garaietan horrelako kontraesanak suertatzen dira.

Bergarako PSE-EEk bere hauteskunde programan "corridak" bultzatzea premiazkotzat jarri du. Nahiz eta bere programan ez agertu Abajo jaunak ere horrela jokatu du azken urte hauetan, itxura denez, bere "cuadrillak" ondo aholkatuta. Igandeko hauteskundeetan, botoa emateko garaian, taurinoek izango dituzte zalantzak..., bietako nori eman?

ZEZENENGANAKO ERRESPECTURAKO BATZORDEA

Tiira biraka

Jonik gauza ugari
 zituen buruan...



Belarri ikaragarriak
 zituen.



Egun batean amandre maitagarria
 agertu zitzaion eta nahi zuena
 eskatzeko esan zion. Badakizue
 zer eskatu zuen? Motor bat!!



◆ **Bideoa**

Jarduneko Gazte Taldeak antolatuta, "Nire ama sorgina" haurrentzako bideoa emango da bihar larunbata goizeko 11etan Kultur Etxean. Sarrera: 50 pezeta.

◆ **Arte proiektzioa**

Astelehena Beart artisten elkartearen bideo proiektzioa izango da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

◆ **Bedelkarreko zozketa**

Bedelkarrek antolatutako zozketan 17.678 zenbakia izan da saritua. Irabazleak komertzioetan ikusgai dauden koadroetatik nahi duena eskuratu ahal izango du.

◆ **Lazo urdinari eraso**

Aurreko ostiralean ezezagun batzuk Udaletxean jarritako lazo urdinaren kontrako eraso egin zuten pintura horia jaurtiz.

JAIOTAKOAK

Maria Martinez Etxeberria
Maiatzak 18
Joseba Osa Arozena
Maiatzak 21

HILDAKOAK

Aste honetan ez da inor hil Bergaran

Haurren Euskal Jaia ospatuko da igandean Bergaran

Kalina ukrainiarren emanaldia zapatuan Frontoian

Igandean, maiatzak 28, haurren euskal jaia ospatuko da Bergaran. 5 urtetik 14 urtera bitarteko 350 neska-mutiko inguru etorriko direla espero da eta honako 11 talde hauek hartuko dute parte: Oretako Ereintza, Gorosari (Eskoriatza), Loramendi (Aretxabaleta) Oinarin (Antzuola), Txikitxu eta Lore gazteak (Arrasate), Lurra (Urretxu), Soralezeko Ametsa, Oñatz (Oñati), Altsasu eta Bergarako Aranzadi Ikastolako taldeak. Goizeko 10etan talde guztiak Seminarioan elkartuko dira, orduerdi berandua go meza izango da, 11.30etan kalejira, 12etan bertsolariak eta alkate/alkatesa txikien ongi-etorria egingo da Plazan, 13.30etan talde bakoitzak bere dantza berezia eskeiniko du eta ordubietan bazkaria.

Arratsaldean, 16:30etan kalejira Plazara eta 5etan alardea. Mutilek Uztai dantza, Txakarrankoa eta Banakoa dantzak eskeiniko dituzte eta neskek, berriz, Gipuzkoako zinta dantza, Makil txiki eta Arku dantza. Ondoren guztiak batera Gorulari Domingillo eta Larrain



11 taldek hartuko dute parte igandeko Haurren Euskal Jaian. Guztira, 350 dantzari inguru bilduko dira gure herrian.

dantza. Arratsaldeko 6etarako jokoak iragarri dira eta 7etarako amaiera. Egun guztian zehar Jardun eta Moises Aspiazu taldeetako trikitilariak eta Kobok taldeko dultzaineroak giroa alaitzen izango dira.

Kalina ukrainiarrek Frontoian

Bestalde, Xamatx dantza taldearen X. urteurrena ospatzeko antolatu-

tako ekitaldien barne, Ukrainiako Kalina dantza taldeak emanaldi bat eskeiniko du larunbatean 22.30etan Frontoian.

Sarrerak 500 pezetatan salgai jarriko dira 21.30etatik aurrera eta biltzen den dirua Kalina dantza-taldeko partaideentzat izango da dituzten arazo ekonomikoei aurre egin ahal izateko.

Azkenik Xamatzen X. urteurreneko jaialdia irailan izango da ziurrenik.



PINTURAS BERGARA

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

◆ Kontzertua

Zubiaurreko jaietan

Zubiaurreko jaien barruan bihar larunbata gaueko 11etan Exkixu, Ama say eta Fucking what! taldeen kontzertua izango da. Sarrera doanekoa izango da.

◆ Kotxe baten kontrako eraso

EAJko Gipuzku Buru Batzarrak jakitera eman duenez, astebukaeran EAJko bergarar afiliatu baten kotxearen kontrako eraso izan zen Bergaran. Erasoaren ondorioz, kotxearen atzekaldeko eserlekuak eta atzekaldea erre egin ziren.

◆ Kontenedoreei sua

Larunbat gauean ezezagun batzuku su eman zieten Ibargarai kalean eta Irizar kalean dauden bi paper kontenedoreei. Garbileko langileek amatatu behar izan zuten sua.

◆ Orkesta Sinfonikoa

Orkesta Sinfonikoak bi emanaldi eskeiniko ditu astebukaera honetan. Larunbatean gaueko 10etan Azkoitiako Baztarto antzokian izango da eta igandean 19.30etan Oñatiko Parrokian. Azkoitiako Iraurgi abesbatza eta Oñatiko abesbatzaren laguntzaz, besteak beste, *La misión* eta *Oñati* (Aita Madina) piezak eskeiniko ditu.

◆ Musika Eskola

Musika Eskolako 1995-96 ikasturterako matrikula epea ekainaren 22ra arte zabalik izango da 5 urte edo gehiago duten guztientzat. Argibideak 76 57 80 telefonoan 5etatik 9etara.



Sari banaketa Pazkuetako azken egunean arratsaldeko 7etan egingo da San Martin plazan.

IV. Brusa lehiaketa jaietan herriko kuadrilentzat

Brusa, argazki bat eta esaldia aurkeztu behar dira

JARDUN Elkarteko Gazte Taldeak IV. Brusa Lehiaketa konbokatu du Pentekoste jaietarako. Aurreko edizioetan bezala partehartzaileek ondoko gauzak presentatu beharko dituzte: jaietako brusa bat, kuadrilaren argazki bat (18x24 cm, takoa eta koloretan) eta esaldi bat euskaraz (jaien eta euskararen inguruan eta hiru lerrotakoa gehienez). Lehiaketan herriko kuadrila guztiek parte hartu ahal izango dute eta adinaren arabera bi talde bereiztuko dira: 14 urte artekoentzat lehena eta 14 urtetik gorakoentzat bigarrena.

Kuadrilaren argazkia eta esaldia ekainaren 1a baino lehen Jardunen aurkeztu beharko dira. Bestalde, Gazte Taldeak, ekainaren 2an 6etatik 8etara Plazan argazkia ateratze-

rik izan ez dutenei beste aukera bat emango die. Brusa, berriz, ekainaren 6an erakusketa hasi aurretik eraman ahal izango da Plaza-ara. Sariak hauek izango dira: 14 urterarte taldean lehen hirurek 15.000, 12.000 eta 10.000 pezetako sariak jasoko dituzte eta bigarren taldean 30.000, 20.000 eta 10.000 pezetako sariak egongo dira lehen hirurentzat. Partehartzaile guztiek 3.000 pta. ko dieta jasoko dute. Epaimahaiak brusaren diseinua eta esaldiaren bizitasuna eta hizkuntza zuzentasuna hartuko ditu kontutan.

Aurkeztutako brusa, argazki eta esaldi guztiekin erakusketa bat egingo da San Martin plazan Pazkuetako asteartean. Sari banaketa arratsaldeko 7etan izango da. Brusa bukaeran jaso ahal izango da.

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Zezenzaleak-ek jaietarako antolatu dituen ekintzen berri eman zuen prentsaurrean.

Jaietako txekorketa aurkeztu zuen Zezenzaleak taldeak

Igandetik asteartera entzierroak izango dira goizean

Zezenzaleak taldeak aurtengo jaietako txekorketa aurkeztu zuen larunbatean Gure Ametsa elkartearen. Pikatzailearik gabeko txekorketa Pazkuetako igandean izango da, arratsaldeko 6etan Beheko Estazioan jarriko den zezen plazan. Juan Diego salamancarrak eta iaz Bergaran izan zen Francisco Marco Oyarzabal naparrak Idiazabal anaien ganadutegiko txekor bina toreatuko dituzte. Sobresalientea (ordezkoa) Ruben Delgado nafarra izango da.

Zezenzaleak-ek, era berean, igandetik asteartera izango diren entzierruak antolatu ditu. Bete beharreko ibilbidea aurreko urteotako bera izango da, Barrenkaletik zezen plazaraino. Aurrekontua 3 milioi pezeta ingurukoa da. Sarrerak Canalejas, Ganbara, Zer Nai, Urrats

eta Usoa tabernetan eta Kultur Etxean jarriko dira salgai. Prezioak honako hauek izango dira: barrera 2.000 pezeta, tendidoa 1.500 eta haurrak 300 pezeta. Kuadrilenzako sarrerak 1.000 pezetatan erosi ahal izateko gutxienez 10 laguneko taldea osatu beharko da. Entzierroetako sarrera, berriz, 100 pezeta izango da.

Zezenzaleak taldeak hainbat ganadutegitara bisitak egin ditu aurtengo txekorketaren programa osatzeko eta beren hitzetan, *"uste dugu garantiatzeko torero eta ganadua lortu dugula eta gure asmoa Pazkuetan Deba Garaiko zezenzaleak Bergarara erakartzea izango litza-teke"*.

Iaz bezala, kartelego koadroa Abdon Juaristi margolariak egin du.

◆ Zubimendi aske

Mikel Zubimendi Herri Batasunako parlamentari bergararra aske utzi zuten asteazkenean intsumisio delituagatik Bilbon epaitu ondoren. Ertzaintzak Zubimendi atxilotu zuen asteartean Tolosan Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenera deklaratzera ez aurkezteagatik bere kontrako behin behineko kartzeleratze agindua bait zegoen. Martutene eta Basauriko espetxeetara eramane zuten eta asteazkeneko epaiketan ez zien fiskalak egin zizkion galderei erantzunik eman.

Era berean, trasladuetan Ertzaintzaren partetik tratatu txarrak jaso zituela salatu zuen.

Asteazkeneko epaiketan fiskalak Zubimendiren kontra 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatu zuen. Zubimendiren abokatuak, berriz, bere defendituaren absoluzioa eskatu zuen.

Sententzia eman bitartean aske utzi dute Zubimendi. Bestalde, asteazkenean BOTAK Zubimendiren alde deitutako enkarteladan 150 bat lagun bildu ziren plazan.

◆ Kanasta konponduta

Kirol Zerbitzuak jakitera eman digunez, Labegaraietan egoera txarrean zegoen kanasta aste honetan bertan konpondu dute.

◆ Bozketa egunerako oharra

Orain arte Ibaiondo eskolan botatu izan dutenei, igandeko udal hauteskundeetan Martínez de Irala ikastetxean (Aranzadi Ikastolak Poligonoan duen ikastetxean) dagoen eskolan botatu beharko dutela jakin arazten zaie.

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA



zumelaga
JATETXEA

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

IGANDETAN ZABALIK!!

12.747 bergararrek daukate igandean botatzeko aukera

Bergarako Udalbatza eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak aukeratuko dira domekan

Igandeko Udal hauteskundeetan 12.747 bergararrek izango dute botoa emateko aukera.

Bergarak 15.541 biztanle ditu gaur egun eta 18 urtetik gorako herritar guztiek, hau da, biztanlegoaren % 82ak bozkatu ahal izango du.

Botoa goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara bitartean, etenik gabe, eman ahal izango da.

17 zinegotzi

Igandeko bozketetan datozen lau urtetan Bergarako Udalbatza osatuko duten 17 zinegotzi aukeratu dira. Zinegotzi horiek herriko alkatea aukeratu dute legealdiko lehen ez ohizko Plenoan. Sei alderdik aurkeztutako hautagaien artean irtingo dira 17 zinegotzi horiek. EAJren alkategaia, Victoriano Gallastegi izango da; HBren partetik Maite Aristegi aurkeztu da; EAren izenean, berriz, Juan Mari Garitano; PSE-EEren zerrendaburua Alvaro Esparza izango da; IUrena, Andres Diez eta PPrena, azkenik, Fernando Vergarajauregui donostiarra. Azken hau izan ezik, beste guztiak bergararrak dira. Adinari dagokionez, alkategairik zaharrena, Victoriano Gallastegi (54 urte) da eta gazteena, berriz, Fernando Vergarajauregui (23 urte).

Orain dela lau urte egin ziren udal hauteskundeekiko, hiru dira oraingoan ere alkatetzarako aurkeztu diren ze-

rendaburuak: Victoriano Gallastegi, Juan Mari Garitano eta Alvaro Esparza. Azken hau, EEren izenean presentatu zen orain dela lau urte. HBk, alkategai berria aurkeztu du: Jose Luis Elkororen orde, Maite Aristegi. IU eta PPK, bestalde, Bergaran orain arte egin diren udal hauteskundeetan ez dituzte zerrendarik aurkeztu eta, beraz, igandean lehen aldiz izango da Bergaran IU eta PPren alkategaiak botatzeko aukera. Andres Diez eta Fernando Vergarajauregui izango dira bi partiduotako zerrendaburuak.

Andres Diez (IU-EB Berdeak), Alvaro Esparza (PSE-EE), Victoriano Gallastegi (EAJ), Maite Aristegi (HB) eta Juan Mari Garitano Bergarako alkategaiak (argazkian PPKoa falta da). Sei hautagai alkatearen aulkia hartzeko.

Bestalde, orain arteko udal hauteskunde guztietan Bergaran zerrendak aurkeztu izan dituzte EMK eta LKIKoek eta oraingoan ez dira presentatuko. Euskal Autonomi Elkartearen Antzuolan bakkarririk aurkeztuko dituzte zerrendak ZUTIK izenarekin.

Batzar Nagusiak

Igandeko bozketetan bi urna jarriko dira. Baten herriko zinegotziak aukeratzeko botuak sartuko dira eta bestean, Gipuzkoako Batzar Nagusiak osatzeko batzarkideak aukeratzeko botuak. Beraz, botoemaleek bi txartel sartu ahal izango dituzte, bakoitza dagokion urnan.

Gipuzkoako Batzar Nagusietara 8 hautagai bergarar aurkeztu dira: Victoriano Gallastegi eta

Koldo Pereira (EAJ), Jesus Mari Garitano eta Anaje Narbaiza (HB) Kontxi Irizar (EA), Javier Cendoya (PSE-EE) eta Isabel Salud eta Carmen Zabaleta (IU-EB Berdeak)

Hauteskunde mahaiak

Hauteskunde mahaiak ohizko lekuetan jarriko dira. Hala ere, aldaketaxoren bat izango da aurten, hain zuzen ere bestetan Ibaiondon jarri izan diren mahaiak aurten Aranzadi ikastolak Matxiategin duen eskolatan jarriko dira. Bergaran, bost leku ezberdinetan jarriko dira hauteskunde mahaiak. Seminarioan, Aranzadi Ikastolako geletan, herriaren erdialdeko biztanleek, hau da, kalean, Bolun edota Elosun bizi direnek, eman ahal





Igandeko bozketetan bi urna izango dira: bata Bergarako Udaltzatza osatzeko eta bestea Gipuzkoako Batzar Nagusietakoa.

izango dute botoa. Aranzadi Ikastolak Boni Lascurain kalean duen ikastetxean, berriz, Matxiategi, Zubieta, San Lorentzo, Basalgo, San Juan edota Ubera aldekoek eman beharko dute botoa. Osintxu eta Mekolalde ingurukoek, ostera, Osintxuko liburutegian jarritako mahaietara hurbildu beharko dira. Martokoko aurrekoletako geletan, Mintegi, Urteaga, San Antonio, Martoko edota Zubiaurrekoek botatu ahal izango dute eta Ibarrako eliza ondoko geletan, Labegaraia, Ozaeta, Elorregi edota Angiozarkoek.

ZUTIKen gomendioak

EMK-LKikoak gaur egun ZUTIK taldean biltzen dira eta herriari zabaldutako idatzi batean hauteskunde hauetara ez aurkezteko arrazoiak aipatzen ditu: "boterearentzako gogoko ez diren taldeak zokoratzen dituen paktu-politikoak ikustarazten digu ordezkaria lortuta ere muga haundiak izango lirate-

keela gure ideia eta asmoak gauzatzeko".

ZUTIKek, dela EMK-ren izenean edo EMK-LKirenean, orain arte izandako udal hauteskunde guztietan aurkeztu ditu zerrendak Bergaran eta bitan zinegotzia lortu du. Azkenengoan ez zuen zinegotzirik lortu. ZUTIKek

Orri berezia

BERRIGARAK Bergarako emaitzei buruzko orri berezia argitaratu du hauteskunde biharamonean, astelehenean. Orria, periodikoen neurrikoa, egunkariak erosteko kioskoetan, okindegietan, supermerkatu haundietan eta ikastetxeetan doan banatuko da. 3.500 ale inguru banatuko dira eta bertan Bergaran izandako emaitzak mahairik-mahai, Udaltzatza osatuko duten zinegotziak nortzuk izango diren, iritziak, balorazioak eta abarrak jasoko dira. Beraz, astelehenean hartu ezazu doan BERRIGARaren orri berezia.


giroaren defentsa: benetako jarrera ekologista, ingurugiroa babestearen aldekoa. Deba bailara bondatuko ez duten obra faraonikoak bultzatuko ez dituen eta Abiadura Haundiko Trena edota Maltzaga-Urbina autopista bezalako proiektuak onartuko ez dituen.

Horrez gain, dirua herriaren onerako erabili dezala, horregatik, bezkuntzak, osasunak, kulturak edo kirolak diru gehiago behar dute; Feminismoaren eta gazteriarren mesederako politika bat izan dadila, langileen eskubideak defendatuz.

Giza eskubideen aldekoa izan dadila eta presoaren eskubideak defenda ditzala; Udal bizitza demokratizatzearen aldekoa: herriaren eskaerei erantzun eta gizarte mugimenduei laguntza eman diezaiela. Azkenik, Nazio Subiranotasunaren eta autodeterminazioaren aldekoa izan dadila".

ez du alderdi konkretu bati botatzeko eskatzen, baina honako hauek hartu behar dira kontutan botoa ematerako orduan ZUTIKen ustetan: "Benetako politika antimilitarista izatea eta intsumiso-mugimendua lagundu eta bultzatzea. Bestalde, gure lurraren eta inguru-


Azken hauteskundeetako emaitzak Bergaran



1991ko UDAL HAUTESKUNDEAK	1994ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK
2.801 %34,3	2.245 %28,7
7 zinegotzi	



1991ko UDAL HAUTESKUNDEAK	1994ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK
1.182 %14,5	796 %10,1
2 zinegotzi	




1991ko UDAL HAUTESKUNDEAK	1994ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK
2.650 %32,5	2.449 %31,3
6 zinegotzi	



1991ko UDAL HAUTESKUNDEAK	1994ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK
-	435 %5,6
-	
-	



1991ko UDAL HAUTESKUNDEAK	1994ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK
1.080 %13,3	1.294 %16,5
2 zinegotzi	



1991ko UDAL HAUTESKUNDEAK	1994ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK
-	436 %5,6
-	
-	

Elikadura

Errejimenak

- Uda hurbildu ahala argaltzeko errejimen miraritsuak agertzen dira nonahi. Zer deritzozu?

- Gure dieta elikagai konzentratu eta diluituez osatzen da. Diluituak fruta, barazki eta yogurrak lirarteke eta konzentratuak, berriz, gainontzekoak: zerealak, ogia, irinak, legun-break, frijituak... diluituak ez diren beste guztiak azken batean.

Argaltzea nahi badugu gure dieta hobetu beharra daukagu. Gure gorputzaren %70a ura denez, gure elikaduran ur proportzio hori hartu beharko genuke. Beraz, gure dietaren %70a elikagai diluituekin osatu beharko genuke eta gainontzekoa konzentratuekin.

- Hori praktikara eramatean ez genuke gosarik izango?

- Beharrezkoa jaten baduzu ez duzu zertan gosarik izan behar. Beste gauza bat da janarekiko antsietatea izatea baina estomagoa hutsik sentitzen dugun bakoitzean ez dugu gosea dugula pentsatu behar. Gorputza ondo zaindu ezkerro sobratzen zaizkion

kiloak kentzeko joera dauka. Hori bai, ezin diozu gauetik egunera kentzea eskatu.

- Zein da beraz kiloak kentzeko metodurik onena?

- Nik errejimenak errefusatu eta ohitura egokiak hartzea aldarrikatzen dut. Kuestioa ez da zure gorputza eta nahiak erreprimitzea baizik eta ohitura on batzuekin norbera gus-



ENEKO LANDABURU
(Mediku hijienista)

tora sentitu eta disfrutatzea. Ohitura horiek konstantzia bat eramatea da metodurik onena eta dieta sano batekin argaltzea lortuko dugu gure gorputzarekin askoz ho-


reto sentituko bait gara. Gorputza ondo tratatzea nahikoa da, besterik ez.

Bestalde, gaurko gizarte kontsumistak beharrezkoa baino gehiago jatera bultzatzen gaitu eta horrela zenbait pertsonen loditzeko joera izaten dute. Gauza bat da kantitatea eta bestea kalitatea. Elementu toxikoak jatean (frijituak, gatza eta okela eta arraina esate baterako) gorputzak horiek disolbitzeko beharrezkoak zaizkion likidoak erretentzen ditu eta nolabait gorputza *putzu* egiten da. Zelulitisa adibidez likidoak erretentitzearen ondorioa da. Egokiena gutxiago jan eta jaten duguna kalitatekoa izatea litzateke. Ohitura osasuntsuak hartzen eta mantentzen ahalegindu behar dugu.

- Zein zailtasun aurki ditzaugu?

- Batetik gizartearen ohituren kontra joatea. Alterneak presio soziala dakar eta hori zailtasun nabaria da eguneroko bizitzan. Bestalde, janaria droga bat bezala erabiltzen dugu askotan eta beste motatako lasaitasun batzuk aurkitzen saiatu behar gara. Eta azkenik, zera adierazi nahi nuke: giza-kiok baliotsuak garela gure gorputzaren itxura alde batera utziz. Norberarenganako estima izan behar dugu, gaur egungo edertasun moldeei kasorik egin gabe.

"Gure gorputzaren %70a ura denez, eguneroko dieta elikagai diluituetan oinarritu behar da"



Gorputzak sobratzen zaizkion kiloak kentzeko joera dauka.

Garnish

Bitxitegia


San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Debalde

DEBALDERAKO KOMERTZIAL LANAK GASTEIZEN egiteko PERTSONA BAT behar da. Interesatuak deitu 76 03 97 telefonora.

Ilusioa pantailetan

Novedadesen 430 jarlekuak betetzeko eguraldi txarra egin behar du



Bergaran, Deban, Eibarren, Arrasaten, Irunen eta Zarautzen zineak pribatuak dira. Gainontzeko herrietakoak Udalarenak dira.

Askok izango dute gogoan Novedadesen "Haizeak eraman zuena" estrenatu zen eguna, edo Antonio Machin zuzenean entzun zutenekoa. Orduz geroztik zineak gora-behera galantak izan ditu, eta zenbait zinek atek itxi ere egin dituzte.

Novedadesek, esaterako, 1960an- edo itzali zituen argiak, gero atzera 76an pizteko; Cinema Bergara 71n itxi zen betirako; eta Iralak 85ean erakutsi zituen azkenengoz zeluloideko izar handiak. Eta nork ez du akorduan Entseñantzan edo Seminarioan ikusitako filmeren bat?

Gaur egun ezin esan zinea Bergaran unerik gorenean dagoenik, baina ezta garairik txarrenean ere.

Gero eta zine pribatu gutxiago

Gipuzkoan herri gutxitan geratzen da zinea enpresari pribatuen esku.

Bergara, Deba, Zarautz, Arrasate, Irun eta Eibar dira udalarenak ez diren bakarrak. Josean Azkarate-askasua, Novedadeseko arduradunetarikoa baten esanetan, "gaur egun herri askotan ez dago zinerik eta dagoenetan udalak bartu du ardura. Udalak areto eder eta do-

torea egiten du eta gero bertan egiten dira kultura ekitaldi guztiak: zine eta antzerki emanaldiak, kantaldiak..." Bere iritziz, bada beste joera bat ere, "orain multinazionalak, filmeak banatzen dituzten etxe haundiek (Warner, e.a.) birietako aretorik onenak bereganatzen eta konplexu handiak eraikitzen dibardute (Max Centerreko 12 multizineak...)".

Hala ere, Joseanen ustez, herrietan ez da hala korik gertatuko, herrietako zineak ez direlako negozio handia.

2.000 urtera arte zabalik

Bergarako Novedades alokairuan dute Joseanek eta aitak, Angelek, 2.000 urterarte. Aita diru kontu ez arduratzen da, semea leihatilan egoten da eta bien ardura da zinearen gestioa eta filmeak kontratatzea. Horietaz gain, badira beste bi langile ere: atezaina eta filme emalea. Joseanek esan digunez, Bergaran zineak ez du jateko lain ematen

"Bergaran filmerik arrakastatsuenak genero guztietatik zerbait nahasten dutenak dira"



Bergaran zinean jenderik gehien San Martin ostean eta eguna luzatu bitartean ibiltzen da.

eta beste lan bat derrigorez egin behar dute. "Zinea ez da gure ogibide bakarra, beste zerbaitean lan egin beharra dugu. Guretzat hau hobya da".

Filmeak nola aukeratu

Filmeak pantailaratu aurretik nola aukeratzeko eta eskuratzen dituzten, Joseanek azaldu digu. Lauzpabost banatzaile multinazionalekin egiten dute lan eta urtean bakoitzak lau bat sorta eskeintzen die. Sorta osorik hartu behar izaten da ez dago filme bat hartu eta besteak baztertzetik, "oro har, sortako filme bat

ona bada, beste hamarrak kaskarrak edo txarrak izaten dira; hortaz, filme on edo sonatu bat pantailaratzeko txar ugari erosi behar izaten dugu. Gainera, kontratua sinatzeko garaian filmeak artean estreintatu gabe egoten dira eta esan daiteke 'itsu-itsuan' sinatzen dugula. Izan dira kontratua sinatu eta urtebetera eman ditugun filmeak".

30.000 eta 50.000 pzta. bitartean

Filmeek prezio desberdinak izaten dituzte: hasi 30.000 pezetatik eta milioi erdira bitartean;

filmerik sonatuenak sarriren portzentaiaren ar-

bera ordaintzen dira: "Forrest Gump, Pulp Fiction eta horrelako filme arrakastatsuek esaterako, sarriren bildutakoaren %60arekin ordaindu ditugu. Jendeak uste du zinea gainezka ikusten duenean aberastu egiten garela, baina ez da bala. El rey Leon lortzearren, adibidez, beste 20 txar eskuratu behar ziren eta garesti, gainera. Kontuak egin eta ez zen xoxik ateratzen, honenbestez, zenbait herritan ez zuten eman (Arrasaten, e.a.). Guk jendea zinema erakartzeko asmoz pantailaratu genuen". diosku Joseanek.

Hasierako prezioa aldatu egiten da

Filme bat hiriburuetan estreinatutakoan Josea-



Josean Azkarate-askasua: "Filmeek 30.000 eta 50.000 pzta. bitartean balio dute"

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak
 Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...
 Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Aldoka
Maldoka
TABERNA
 Kruz Gallastegi BERGARA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
 Kafea da gure berezitasuna
 Zubieta, 26 BERGARA

nek ikusi egiten du, eta zenbatek ikusi duten eta kritikak oso kontutan izaten ditu. Kontratua sinatutakoan filmeak prezio bat izan arren, gerta daiteke filmea ikusitakoan prezioa gehiegizkoa iruditzea. Hala gertatuz gero, nahiz eta kontratua sinatuta egon, banatzailearekin prezioa jeisteko tratua egiten da. "Sokati-ran bezala ibili behar da, burruka latza izaten da, banatzaileak ez dizula jeitsi nahi..."

Gero, filmea banatzaileari eskatzen dio eta kopiarik badago ekarri egiten diote. Orain, oro har, hiriburuetan estrenatu eta hilabete t'erdira iristen dira. Filmea oso arrakatsua izanez gero, kopia gehiago izaten dira eta lehenago heltzen da.

Emateke geratzen diren filmeak

Zenbait filme emateke geratzen dira, "batzuk oso txarrak izaten direnez, hobe izaten da ez erakustea". Aurrez eskuratu-ta egoten direnez, ordainduta egoten dira. Jabeak ikusi behar du pantailaratzeta merezi duen ala ez. Banatzaileek ez dute se-

kula barkatzen eta minimoa ordaindu behar izaten da. "Iaz eman gabeko pelikulengatik miloi erdi ordaindu genuen".

Novedadesen norma-lean astean filme bat ematen dute, baina ba-

Garai hobearen zain

Sasoi batean, Bergarara biltzen zen inguruko herrietako jendea eta zine-nea bete egiten zen, "kanpotik jendea etortzen zen eta denean ze-

dugu eta, jakina, zinean ere nabaritzen da". Novedadeseko 430 jarlekuak betetzeko eguraldi txarra egin behar du. "Filme berbera eguraldi onarekin edo txarrarekin, aretoa bustuta edo beteta



Kanpotik jendea Bergarara etortzen zenean jende asko ibiltzen omen zen zinean, tabernetan bezala.

tzuetan filmeak pilatuta ez izateko eta emateke ez lagatzeagatik astean bi pelikula pantailaratzten dituzte.

goen jendea eta giroa: kalean, tabernetan, zinean... gaur egun kanpokoak ez dira etortzen eta bertakook alde egiten

egongo da". Jenderik gehien San Martin ostean eta eguna luzatu bitartean ibiltzen da: "Badira 100 bat lagun beti etortzen direnak, baina gaitz nontzekoak eguraldiaren araberakoak dira". Joseanek dioenez: "egunen batean Bergara lehenago izaten bada, zinera ere jende gehiago etorriko da".

"Badirudi jenderik gehien domeka arratsaldean etortzen dela baina ostiral gaua eta larunbata dira onenak"

BERGARA
Karrozeriak
 Txapa - Pintura
 Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7 behea.
 ☎ 76 50 39



JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
 ☎ 76 14 95

EAJ-PNVren GESTIOA BERGARAN

Udaletxeko Interbentzio departamentutik eskuratutako datuak azaldu nahi dizkizuegu herritar guztioi, 1990 (HB) eta 1994 (PNV) artean egon diren aldaketak gobernu bien legealdiko azken urtean.

Jakin dezagun lehenengo zein izan den urte hauetan eman den KPIaren (IPC) igoera

URTEAK	1991	1992	1993	1994	GUZTIRA
KPI	%5,5	%5,4	%4,9	%4,3	21,6

AZALPENA	HB (90-12-31)	PNV-PSOE-EE (94-12-31)	IGOERA
Udaletxeko kreditoak	379,4 M.	1.684,1 M.	%444
Kreditoen interesak urtean	45,7 M.	160,9 M.	
Amortizazioak urtean	29,0 M.	25,0 M.	
Sarrera arruntak	1.035,8 M.	1.312,1 M.	%26,6
Gastu arruntak	877,3 M.	1.223,8 M.	%39,5
Gastuak / Sarrerak %	%84,7	% 93,27	
Pertsonal gastuak	445,6 M.	535,5 M.	%19,2
Politikoen gastuak	17.107.862	31.528.910	%184
Biztanleko zorra	24.097	108.364	%450
Zorpen indizea	%8	%20	

Beraz, datu hauek ikusirik esan dezakegu:

- Udaletxeko zorra 4,5 aldiz handitu da.
- Sarrera arruntek %26.6ko igoera izan dute gastu arruntek %39.5eko igoera izan duten bitartean, gestio txarra agerian jarritz.
- Politikoen gastuak %184 igo dira, ia bikoiztu egin dira.

Azpimarratzekoa da, PNVko gobernuak biztanle bakoitzari laga dion zorra: 24.097 pzta. izatetik 108.364 izatera pasa da. Honek esan nahi du herritar bakoitzari ezarri dion zorra orain dela lau urte baino 4,5 aldiz handiagoa dela, hau da %450. Beraz herritarrak jaso duen presio fiskala asko handitu da, kontutan hartuta KPIa %21,6 igo dela.

Alkatearen eta HBko liberatuaren soldaten konparazioa

	1990 HB liberatua	1994 PNV Alkate liberatua
Soldata gordina	3.034.626 pzta.	6.677.986 pzta.
Gizarte Segurantza	946.548 pzta.	1.368.588 pzta.
Berreskuratzen dena	——— pzta.	410.576 pzta.
GUZTIRA	3.981.174 pzta.	7.635.998 pzta.

Ur, estolderia eta zaborren prezio publikoen igoera

	1991	1992	1993	1994	1995	IGOERAREN %
URA	35,5	38	41	55	67,5	%90
ESTOLDERIA	728	893	820	836	1.588	%118
ZABORRA	843	902	965	1.100	1.154	%37

ALKATEARI GEHIAGO ORDAINTZEN DIOGU BAINA:

Ur gehiago eta hobe daukagu?

Garbitasun zerbitzua sarriagotan eta hobe daukagu?

Hobeto bizi al gara?


Ikusitakoa ikusita, eta botoa emateko eskubidea bete behar duzuen momentu honetan bergarar guztioi erreflexionatzeko eskatzen dizuegu udaletxeak atxikitzen dizkizuen diruon administrazioa noren esku utzi nahi duzuen modurik serioenean pentsatzea.

Lortu duguna ekartzeko ez genuen urrezko ontzirik behar.

PRESIO FISKALA JEISTEA DA HBren HELBURUA

Ados bazaude

**EMAN BOTOA
HERRI BATASUNARI**



Elkarrizketa.....

Felix VELASCO okina

- Zenbat urte daramatzazu ogia egiten?

- 44 urte, 13 urte nituenetik ari naiz honetan.

- Gustoko lana da?

- Oso gogorra da, baina denborarekin ohitu egiten da.

- Zenbat ordu egiten duzu lan egunero?

- 11 ordu, ia gau osoa.

- Zenbat ogi egiten dituzue egunero, gutxi gora behera?

- 1.000 ogi inguru.

- Ogi desberdinak egiten al dituzue?

- Barietate haundia, horretarako makina desberdin asko erabili behar ditugu.

- Beste herri batzuetarako egiten dituzue ogiak?

- Bai, adibidez, Antzuola, Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta baserrietan ere saltzen ditugu.

- Non dago okindegia?

- Okindegia Zubillagan, Oñati, eta dena San Pedron, Bergara.

- Zenbat langile zaudete?

- Sei langile.

- Zenbat makina

edo tresna dituzue?

- Lau makina eta horretaz aparte, kamarak ere baditugu.

- Zein da gehien saltzen den ogia?

- Gehien saltzen den ogia egurrezko labean egiten dena da.

- Jendeak ogi as-

ko jaten al du?

- Bai, asko gustatzen zaie.

- Kexarik izaten duzue?

- Ez, jendea pozik dago, baina batzuetan makina bat apurtzen bada, ogia gaizki ateratzen da eta...

"44 urte daramatzat ogia egiten. Lan oso gogorra da, baina denborarekin ohitu egiten da"



"Gehien saltzen den ogia egurrezko labean egindakoa da"

.....9 galdera motz

Txistea

Institutuko 3. mailako ikasle batekin hizketan egon gara aurten egin duten ikasbidaiaren inguruan.



Karen Pose ikaslea

- 1 Nora joan zarete ikas bidaian?**
Italian zehar ibili gara.
- 2 Zein maisu joan dira zuekin?**
Julio gimnasiako maisua eta bere andrea.
- 3 Gauza positiboena?**
Mutilak eta giroa.
- 4 Negatiboena?**
Autobusa eta oso goiz jaiki beharra.
- 5 Eta harrigarriena?**
Venecia.
- 6 Anekdotarik?**
Nizan Juliori kondoi bat eskatu genion brometan.
- 7 Ikusi dituzuen hirietatik gustokoena?**
Florentzia, jende oso atsegina topatu genuen eta.
- 8 Hizkuntza arazorik?**
Poliki hitz egin ezkerero ondo ulertzen zitzaien.
- 9 Ezagututako pertsonen artean jatorrenak?**
Florentzian ezagututako mutil kuadrila bat...

Aitor Arruti
2. B
GETARIAR BATEN ABENTURAK

Getariar bat, Gasteizko kaletan barrena, Dato kalearen bila ari da eta halako batean, paretik pasatzen zaion gizonari galdetzen dio:

- Hi, ba al dakik non dagoen Dato kalea?
Eta besteak:
- Ez, ni ez naiz hemengoa eta ez daukat hemengo berri. Jarraitzen du getariarrak kalean barrena eta oraingoan ere gizon bati gauza bera galdetzean, honek zera esaten dio:
- Ez, ni ama gaixoari hospitalera bixitatzera etorri nattaio, eta ez dakit Gasteizko kaleen izenik.

Getariarra jadanik haserretzen hasten da eta ondotik pasatzen zaion neskari ere, Dato kalearen berri duen galdetzen diorean, honek:
- Ez, ni eskurtsio batetara etorri naiz Gasteizera eta ez daukat hemengo berririk.
Getariarra urduri dagoelarik, beste neska bati zera galdetzen dio:
- Hi, hi "Vitoriana" al aiz?
Eta honek erantzun:
- Ez, ni Fermina.

Jolasean.....

Bete ondorengo hutsarteak azpian dauden hitzen artean bat aukeratuz:

- | | | |
|--------------------------------|--------------------------------------|--|
| 1. BATEKO
GABEKO
PAKEKO | 5. PERTSONAK
GORPUTZAK
HODEIAK | 9. BIZTANLEAK
SEMEAK
LIRIOAK |
| 2. ZORTZIAK
LAUAK
BOSTAK | 6. HORRELA
HONELA
BESTELA | 10. ASKATASUNA
BATASUNA
ALTXORRA |
| 3. TRISTE
POZIK
GOIBEL | 7. ORMAZABAL
LASA
OTAEGI | 11. ASKATASUNA
BATASUNA
ALTXORRA |
| 4. ITSUA
GOGORRA
HANDIA | 8. ZUEN
GURE
HAIEN | 12. INDARRA
KEMENA
BARREGUREA |

Erantzunak:

1. GABEKO 2. BOSTAK 3. TRISTE 4. GOGORRA
5. GORPUTZAK 6. HORRELA 7. OTAEGI 8. GURE 9. SEMEAK 10. ASKATASUNA 11. BATASUNA 12. INDARRA


Egun senti (1) egun batean
(2) bidetik zihoazela
halabehar (3), gogor baterantz
Gora Euskadi, Euskadi askatuta.

Zarata (4) eta zirgintari bat
(5) dardar hasten direnean
txiki begiak, hobeki da (6)
Gora Euskadi, Euskadi askatuta.

Txiki-txiki (7)..... ta besteak
(8)..... askatasunagatik han hil zirenak
ez dira itzuliko, herriaren (9)
Gora Euskadi, Euskadi askatuta.


Lapur nahi digute gure (10)
lapur nahi digute denon (11)
herria daukagu ta (12) ere bai
Gora Euskadi, Euskadi askatuta.

Zein da zure ustez alkateak herrian egin beharko lukeen lehendabiziko gauza?




Bernabé Mondragon
71 urte, jubilatua

Gauza asko daude egiteko. Badira nere ustez berriztu behar diren kale eta edifizio asko. Udaletxean diru asko gastatu da, ondo dago egina baina beste lan asko daude.



Ceferino Moreno
46 urte, langilea

Ez dakit, aparkalekuak beharbada botatzen ditut faltan aparkatzeko arazo asko izaten dira eta.



Martin Aspiazu
36 urte, langilea

Oraintxe bururatsen zaidan gauza aparkalekuak. Ordu zehatz batzuetan arazo ikaragarriak izaten dira, eguerdian edo arratsaldetan.



Mari Carmen Larrañaga
50 urte, etxeakoandrea

Ez dakit orain. Gazteei dagokienez, gaztetxe baten beharrea daudela ikusten dut.



Rosario Sotillo
35 urte, langilea

Gaztetxoak dibertitzeko leku bat botatzen dut faltan. Nik 16 urteko seme bat daukat eta Zumarragara joaten dira. Diskoteka bat beharbada ondo egongo litzateke.



Mari Jose Telleriarte
30 urte, etxeakoandrea

Pasiuetan banku gehiago beharbada. Ez zait ezer gehiago okurrizten momentuan.

EUSKAL MUSIKAREN BILDUMA

- Maiatzak 20 larunbata
- Maiatzak 24 asteazkena
- Maiatzak 27 larunbata
- Maiatzak 31 asteazkena
- Ekainak 3 larunbata
- Ekainak 7 asteazkena
- Ekainak 10 larunbata
- Ekainak 14 asteazkena
- Ekainak 17 larunbata
- Ekainak 21 asteazkena

- Oskorri
- B. Lertxundi
- Mikel Laboa
- Itoiz
- Sorotan Bele
- Hertzainak
- Zarama
- Lin Ton Taun
- Su Ta Gar
- Negu Gorriak



Asteazken eta larunbatero
Egunkaria rekin

Egizu dentzia
Egunkariaren
mertxan!!

390 Ptas
215



S.O.S

Azken bi aste hauetan, hauteskondeez gain, aukera ederra izan dugu egunkarietan zenbait albiste interesgarri irakurri ahal izateko. Gaurkoan ere, ez dut ezer berririk ekarriko astekari honen orrialdeetara baina geroz eta maizago gertatzen ari diren istiluez hitzeging nahiko nuke.

Gizartean jarrera kontrajarri pila bat aurki ditzakegu. Batetik, arrazakeriaren kontra lanean ari diren zenbait pertsona eta erakunde ditugu. Bestetik ostera, itxuraz honen kontra daudenak baina beraien ekintzetan aurkakotasun hori adierazten ez dutenak. Esan bezala, aspalditxoan gertatzen ari diren "iskanbilak" geroz eta indar haundiagoa lortzen ari dira munduko bazter guztietan.

Egia da erakunde zein pertsona asko ari direla arrazakeria eta xenofobia deuseztatzearen alde lanean. Eta esan beharra dago bestalde, erakunde hauen lana aipagarria eta eskertzekoa dela. Baina geureganatuta ditugun ideia edo klitxeak ez dira egun batetik bestera desagertzen. Edo bestela nola da posible, duela gutxi Parisen, Madrilen eta Bilbon gertatutakoak arrazoiaren bitartez azaltzea?

Ez diot inori inolako argibiderik eskatu nahi. Ezta bakoitzak egin behar duena esaterik nahi ere. Baina beranduegi izan baino lehen, asko gustatuko litzaidake eguneroko bizitzan gutako bakoitzak, zein jarrera dugun aztertzea. Ez dago oso urrutira begiratu beharrik.

Josune IÑARRA



Gazterixia

Komenio kalian nago, zerbeza bat edaten eta erdi kanpotar erdi bergarar sentimentu arraroak lagunduta panoramia ikusten.

Bergara, sitio distinto?

Aspaldiko esaera batek esaten zebanez Bergaran ein zeikien gauzaik onena aitxaren ein eta ahalik eta bizkorren alde eixia zan. Eztakigu seguru zeaitxik esaten zeben hori, baina zeoze eongo zan. Igual, oso herri zatarra izango zan, edo zikina; igual, lapurra besteik ez zeolako izango zan? edo fede gutxiko jendia biziko zan? Auskalo.

Eztakitx zenbat urte geruau esaera hori erabiltzen hasi bihago ga gaztiak eta danak. Gaur arrazoi bat baino gehixau eon leike baina bat behintzat bistakua da "kanpotar" honendako: gaztien etxea, osease, gaztetxia. Bai, hemen parian daukaten etxia, itxitxa daon etxia.

Eta klaro, itxitxa baldin badao, ze eongo da ba? Ezebez.


Nik eztakitx jendiai ez jakon bape inporta edo benetan leku arrarua dan hau, edo gaztiak paso itxen daben edo zer, baina gaztetxe batek herri bati emoten dotzan mobimientua eta saltzia ezta txorrada bat. Gaztetxia edozein gauza eixeko lokala da, txarlak, erakusketak, kontzertuak, antzerkia, txapelketak, berba, edan, lagunekin eon, nahi dana. Martxan eon ezkerro gure osasun mentala irabazten irtengo litzake, seguru.

Batzuk esango dabe Bergaran jendiak eztaukala horren preminai, zeaitxik ezpadakigu be, jendia ezta alkartzen eta bakoitzak beria eitxen dabela, edo eztakitx zer; baina gauza bat argi dao: lokalik pe ezpadao, edozein gauza eixeko aukeraik pe eztao. Eta Bergan hori be ez!

Beno, txorradak esatiai laga ta banoia ni be aitxaren einda... katekesisera...

Herri bat, gaztetxe bat!!

Joxe LAZKANO



ezkerraren botoa

Bergarako Ereserkia

Bergarako ereserkia, San Martinen himnoa eta martxa eta herriko elkarteen martxak biltzen dituen disko konpakto eta zintaren aurkezpena egin zen pasa den ostegunean Pertxa Elkartearen Kaseta eta konpaktoa Bergarako Udalak argitaratu ditu eta datorren ostiralean, Udal Pelotalekuan



gaueko 10.30etan egingo den ekitaldian jarriko dira salgai 1.000 eta 1.500 pzta.tan. Pieza guztiak herriko hainbat autorek konposatutakoak dira. San Martin, Or Konpon, Umore Ona, Pol-Pol, Pix-Pol, Campeones, San Martinen Ereserkia, Pertxa, Altzasu, Bergarako Musika Eskola, Lasai-Toki, Oilagorra eta Bergarako Ereserkia dira **Udal Musika Bandak**, Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean **IZ disketxeak** Billabonan dituen estudioetan grabatu diren piezak. 1.000 kasete eta 500 disko konpakto argitaratu dira milioi bat pzta.tik gorako presupuestoa izan duelarik. Diskoaren eta kasetaren azalean **Miguel Okinaren** marrazki bat erabili da.

Aurkezpen ekitaldian, Luis Abajo kultura zinegotzia, Alfredo González Chirlaque Bergarako ereserkiaren musikaren egilea, Juan Martín Elexpuru letraren egilea eta elkarteetako ordezkariak izan ziren. Behe Bergarako himnoaren letra.

Baserri, kale, San Pedro, Santa Maiña, golde, tratore, ehun da burdina, bizitzeko zein leku atsegina, eskerrikasko arotz eta hargina.

Sustarrak sakon gure haritzak lau haizetara adarrak zabalik, jakintza-gose, bizipozean mendez-mende euskaldun nahi zaitut ni

Baserri, kale, San Pedro, Santa Maiña Golde, tratore, ehun da burdina, bizitzeko zein leku atsegina, gora Bergara berde eta urdina!



Itxaso Azkarate, Nartxi Azkargorta, Carlos Odriozola, Iñaki Mata, Pili Garcia, Karmele Pérez eta Miren Urkijo (jarrita), Taun-Taunek Alemanian izan duen ordezkariarekin. Atzean jaialdiko kartela.

Txotxongilo bidaiariak

Taun-Taun txotxongilo taldeak parte hartu zuen aurreko astean **Nurembergeko (Alemania) Nazioarteko Jaialdian**. Mundu osoko 100 bat talde izan ziren bertan, tartean Jordi Beltrán (Bergarako jaialdian izan zena) eta Pep Bou katalanak. Taun-Taunek txundituta utzi zuen ikuslegoa **"Makinatu"** bere azken lanarekin eta bergararrak 7 aldiz irten behar izan ziren eskenatokira emanaldiaren amaieran jendea agurtzeko. Han lortutako arrakastaren ondorioz, irailan Holandan hiru emanaldi emateko aukera izango dute Taun-Taunekok. Dударik gabe, goi mailan jarraitzen dute gure titiriteroek...

GPC Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ Kol. Zenb. E-2346
Ansietate, obsesio, depresio eta stresaren diagnostiko eta tratamendua, peritaje psikologikoa. RPS: 33-95
Ramon Maria Lili 2, printzipala eskuma ☎ 76 59 39 BERGARA

BOLINTXO
Okindegia
 San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
 Ibarrekruz, 4 EIBAR
 ☎ 76 63 42 ARRASATE

Kabutzia
ARRAINDEGIA
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62



Zaharren olinpiadak

Jubilatuetakordezkariek Legazpin jokatu den Gipuzkoako egoitzen arteko txapelketan parte hartu dute asteazkenetik gaur arte. Argazkian Gipuzkoako txapelketarako sailkatzea lortu zuten bergararrek. Ezkerretik eskumara, goian: Felipe De Benito eta Marcelino Gómez (tute), Felix Loidi eta Julian Aiastui (mus) eta Martin Guridi eta Jesus Etxabe (briska).

Makurtuta, Saturnino Poza eta Rafael Vallejo (domino), Bixente Uribesalgo, Juan Larrañaga eta Jose Arakistain (toka) eta Laureano Montero (billar). Ea domina askorekin bueltatzen diren gaur.

Herri Bazkaria

Igandean Miguel Altunaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne bazkari herrikoia egin zen Udal Biltegian. 62 lagun bildu ziren bertan, irakasle eta ikasle izandakoak batipat (lehen



promozioko ikasleren bat ere izan zen). Guztiek ikasle garaiak gogoratu zituzten lagunartean eta ikastetxeak azken 50 urteotan izandako bilakaerari errebasoa eman zioten, anekdotak eta ikastetxearen garai ezberdinak komentatuz. Bazkari ona, solasaldi hobea... Eta ospakizunekin jarraituz, datorren ostiralean, ekainak 2, ikastetxearen eguna ospatuko dute Miguel Altunakoek. Ikastetxe berriaren inaugurazioa, berriz, irailera arte atzeratu da.

Zertan dihardute ba?



Ainhoa Agirreazaldegik

Eskolarteko Bertso Txapelketa irabazi zuen larunbatean Donostiako Belodromoan. Bapatekoan zein bertso paperetan onena izan zen Ainhoa. Horra hor "Agian... maitemindu egin naiz" gaiari buruz idatzitako bertso paperetako bat:

*Halako sentimendu bat /
sortu obi zait barrenean, /
desberdin senti arazten /
nauenan aldamenean. /
Elkarri zer kontatua / beti
aurkitzen denean, / ta
lagunari gustora / entzun
obi diogunean, / isiltasunak
bebartu /
gabekoak direnean, / orduak
ere minutu / biburtzen
zaizkigunean. / Nere buruak
itzala / aurkitu du
azkenean, / ispilu bat ikusten
dut / begiratzen dudanean.*

Ainhoak bina txapel eta bina kopa irabazi zuen sari gisa. Atzo, osteguna, 17 urte bete zituenez, zorion hirukoitzak berarentzat.

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

IGARO
✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariuma
Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Siaska
Dena zure
haurrarentzako
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Feli Etxeberria

Felisa Etxeberriak jaioko den ilobarentzako jertse bat egiten ziharduela hartu gaitu. 15 urterekin orfeoian sartu eta iazko urrian laga zuen taldea. Aho-kordak atsedenean dituela ezin esan, oraindik ere kantatzen baitu. Ah! eta erre ere egiten du.

- Musika gustoko?
- Ikaragarri, sopranoa izan naiz.
- Zenbat urte orfeoian?
- 42. Urrian laga nuen.
- Ahotsa zaintzeko zer?
- Ezerrez, asko erretzen dut.
- Kantatu ala musika entzun?
- Biak. Ezin da aukeratu.
- Noiz entzuten duzu?
- Batez ere triste nagoenean.
- Disko bat?
- Dena gustatzen zait, klasikoa Queen...
- Uda ala negua?
- Uda, poztu egiten nau.
- Eguzkia txarra omen da.
- Niretzat relaxa da.
- Egonean hartzen duzu eguzkia?
- Etzanda, ibilian sekula ere ez.
- Solariumean belztuko



Egunkaria irakurtzea du eguneko lehenengo lana, dantzatzea oso gustoko du, baita kantatzea zein musika entzutea ere. Queen aipatu digu berak. Lagunekin zapaturu elkartzen da eta beste edonorekin baino nahiago du eurekin afaltzea.

zinateke?

- Ezta pentsatu ere.
- **Non hartuko zenuke eguzkia?**
- Jardinean, ez zait gustatzen bidaiatzea.
- **Kirolik egiten duzu?**
- Bai, gimnasia, aerobica...
- **Beti gimnasioan?**
- Atseginagoa da, jendearekin egon...
- **Eta ikusten duzu?**
- Gurean futbola eta pelota ikusten dira.
- **Giroa nork irabaziko ote du?**
- Ideiarik ere ez, ez nau kezkatzen.
- **Dantza gustatzen zaizu?**
- Ikaragarri. Trikitixa... denetarik.
- **Aldizkaria ala egunkaria?**
- Egunkaria, dudarik gabe. Egunero egiten dudana lehenengo gauza egunkaria irakurtzea da.
- **Filme bat.**
- Presunto inocente.
- **Liburu bat.**
- Orain ez dut irakurtzen.
- **Erregaloak jaso ala egin?**
- Egitea nahiago.
- **Norekin afalduko zenuke gustora?**
- Lagunekin. Zapaturu elkartzen naiz lagunekin.
- **Irla bakarti batera zer eramango zenuke?**
- Janaria eta irrati aparailu bat.

Esenio Gabinetea

ASTRODIAGNOSIA • IRIDOLOGIA
SENDABELARRAK
KARTA ASTRALAK • TAROTA
HIDROTERRAPIA • KATAPLASMAK

San Antonio 5 1. D
BERGARA
☎ 76 07 87



IRAKASLE ESKOLA Eskoriatza (Gipuzkoa)

AUKERA HAUEK ESKAINTZEN DIZKIZUEGU:

- Magisteritzako titulu berriak.
- Hainbat arlo ezagutzea: haur hezkuntza, ingelesa, hezkuntza musikala, teknologia berriak, euskara...
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturetan...

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA (Gipuzkoa)
☎ (943) 71 41 57

**1995-96 ikasturterako
aurreinskripzio-epaia
zabalik dago**

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Deban udan. Plaia eta Alameda alboan. ☎ 76 58 91 (gauz).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 05 86.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 31 79.

Garajea salgai Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 908-57 96 39.

DENETARIK

Kotxe merke bat erosiko nuke. ☎ 76 44 65 (Alex).

Fotometro bat salgai. ☎ 76 52 31 (gauz).

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Suzuki 442-S motor txikia salgai. ☎ 76 25 31.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Karabana bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauz).

Graduatutako **betaurreko** marroi batzuk agertu dira Etxagi tabernan.

Altzariak salgai egoera onean. Ohea eta armario roperoa ☎ 76 07 87.

Pisu edo **logela** bat alokatuko nuke Bergaran. ☎ 76 03 97.

Mobylette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Bi betaurreko pare galdu ditut, bata bifokala (montura doraduna) eta bestea gerturakoa. ☎ 76 23 24.

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Txakur emea estaltzeko **doberman har** bat behar dut. ☎ 76 57 67.

Aluminiozko **Vitus** bizikleta salgai. Ia berria. Pedal automatikoa. ☎ 76 51 96.

LANA

OHO eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHOKO** klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Ingeles batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldaturako nituzke. ☎ 76 24 54.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Arratsaldez **zaharrak** edota **haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 18 (Susana).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

23 urteko **mutil batek** as-tebukaeretan **lan** egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauz).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

Agentea:


Ramon IRAEGUI EGUREN



Ramon Maria Lili, 6 behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54
Faxa: 76 41 54

ORDUTEGIA:

Astelehenerik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



ARGAZKI ERAKUSKETA

Bergarako Txakur Leren II Lasterketa




NAHIKARI Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

BONOFOTOA

100.a

EMEN DAUDEN GIZON ARGIDORTARRAK
DIRA ZUZENDARI,
EMAN ZAYOGUN BETI BERGARARRAK
ONRA ERRIARI.



Ana Txurruka eta Jasone Zabala

Ana Txurruka eta Jasone Zabalak jaso dute aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera eurak asmatu baitute. Argazkietan agertzen ziren bi etxeak zein kaletan aurkitzen diren galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Zubieta eta Bidekurutzetan**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak eta Osintxu Erretegiak emandako afaria lau pertsonarentzako **Ana Txurruka eta Jasone Zabalak** jaso dute. Argazkian, Ana eta Jasone, **Osintxu Erretegiko Koldo Arrutirekin**. Zorionak!!

Non aurkitu dezakegu idatzi hau eta aipatzen dituen gizon argidotar horien artean nor jaio zen orain dela justu 400 urte, 1595.ean?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



komentarioa

Kopako finala Pazkuetako jaien ondoren jokatu da Angiozar, Arloteak eta Ufala taldeen artean. Aurtengo kopako finalak sistema berria jarriko du martxan, udako torneoetan erabiltzen den formula alegia. Hiru taldeek 30 minututako elkarren aurkako partiduak jokatu beharko dituzte. Azpimarratzekoa da Angiozar aurten egiten ari den denboraldi bikaina. Izan ere, kopa eta ligako finalak heldu dira eta hori ezin du edonork esan. Arloteak ere maila ezin hobea erakutsi du, kopako finalera ezezik ligako final erdietera ere heldu baita. Talde bakoitzak egindakoari begiratzen badiogu Ufala da hiruretatik boletu gutxien dituenena, baina azken talde honek erakutsi du gai dela edonori irabazteko. Espero dezagun antolatzaileek bi arbitro eramatea finalak...

Madurak eta Angiozarrek jokatu dute finala igandean



Heldu da finala, azken zortzi hilabeteotan 50 talde inguruk jokatu duten Labegaraietako futbito txapelketako finala. Era guztietako partiduak ikusteko aukera izan dugu: partidu onak, txarrak, gogorak, parekatuak, goleada izugarriak...; eta bi talde iritsi dira azkenera: Madura (goiko argazkian) eta Angiozar (behekoan).

Madura da txapelketa eskuartzeko faborito nagusia. Oso jokalaria onak eta bizkorak ditu, golak errez sartzen dituztenak. Baina kontuz Angiozarrekin. Talde gogorra da, partidu guztian zehar borrokatzen duena. Igandean zita.

▼ partiduak

11.30: Arloteak-Kabia

3. eta 4. postuak erabakitzeko.

12.30: Madura-Angiozar

Ligako finala.

SANTOS IRRATI-TB


**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

BERGARAKO MUSIKA ESKOLAREN VII. Udaberriko Jai-kontzertua

- Bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna: Ekainak 1

- Txartelak Musika Eskolan, Ariznoan eta Lazkano oinetako dendan salduko dira



**Jon Lazkano
Pakistanera**

Jon Lazkano eskalatazailer bergararra datorren asteartean Pakistanerantz joango da Kike de Pablo eta Josexo Rodriguezekin batera. Karakorum inguruan dagoen 6.000 metrotik gora duen mendi bat igo nahi dute. Mendiak 1.000 mtako paretak ditu eta Lazkanok adierazi digunez, "eskalada gogorra eta luzea izango da". Lazkanok lau hilabete emango ditu Pakistan aldean.

**Erregionalekoak
promozioaren zai**

BKEko erregionaleko futbol taldeak ezin izan du azken postuetatik ihes egin eta promozioa jokatu beharko du, nahiz eta joan zen astean jokaturako partiduan Vasconiaren aurka berdinketa lortu. Halere, mailari eusteko aukerak baditu oraindik. 2. erregionalean bigarren gelditzen den taldearen aurka jokatu du orain.

Emaitza onak lortu dituzte herriko igerilariak

Bergarako igerilariak Altzan eta Ordizian izan ziren joan zen asteburuan. Altzan promesa mailako igerilari konpletuenaren txapelketa jokatu zen eta bertan Eneritz Muguruzak urrezko domina eskuratu zuen. 12 urteko igerilariak król, braza, tximeleta eta sorbalda estiloetan bere adinako igerilari konpletuena dela erakutsi zuen. Halere 2 ehunenekorengatik Espainiako Txapelketatik kanpo geratu da. "Pena bat izan da. Espainiako txapelketak ekainaren 24tik 27ra izaten dira eta gutxienezko denbora egiteko ez du aukerarik, ez baitago froga gebiago berarentzat" esan digu Leire Zeziaga elkarteko entrenatzaileak.

Beste igerilarietako dagoen Amaia Lazpiurrek 4. postua lortu zuen, Eli Alberdi 11.ena eta Eider Balzategi 13. sailkatu zirelarik. Zeziagak adierazi



Joan zen asteburuan Altzako proban parte hartu zuten igerilariak.

digunez, gainontzeko 4 igerilariak ere emaitza onak lortu zituzten. "Igerilari guztiek oso lan ona egin zuten. Muguruzak bigarrenari 21 segundu atera zizkion eta marka oso onak egin ditu. 1983an jaiotako igerilariak emaitza oso onak lortu dituzte aurtan, errelebotan beti izan dira Gipuzkoako onenak eta banaka hartuta Gi-

puzkoako 10 onenen artean daude guztiak" esan digu Zeziagak.

Dagoeneko amaitu dituzte ohizko frogak datorren uztailera arte, orduan izango baitira Euskadiko txapelketak, bitartean txapelketa berezietan hartuko dute parte. Igeri elkartean 9 urtetik 15 urtera bitarteko igerilariak dabilta. Asteazken zehar egunero entrenatzen dute.

Pelotako finalak zapatuan

Bihar arratsaldeko 4,30etatik aurrera Iker Muruamendiaraz pelotari bergararrak afizionatuentzako I. Pentekosten txapelketako finala jokatu du Quintanar de la Sierrako Rairekin bikote eginez, Haritz eta Galartzaren aurka. Ugarrizakoak zail ikusten du bihar irabaztea, baina ahaleginak egingo dituela adierazi digu. "Aurkako bikotea oso ona da, biak Gipuzkoa ordezkatur Federazio txapelketan ari dira. Halere, atzelaria kantsatzen badugu uste dut baditugula aukerak". Txapelketan egindako lanarekin konforme dago Muruamendiaraz, "lehenengo partiduan nabiko galduta ibili nintzen, baina gero bigarrenean hobetu dudala uste dut. Gainera jarri didaten atzelaria, Rai, oso ona da eta asko lagundu dit".



Ikerrek (17 urte) 20 urteko pelotariak izan ditu aurkari.

Alex Familiar

Herrian saskibaloian lanean

KARTELDEGIA

► Futbola

Bergara-Touring

Lehen errejionala.

Larunbata, 17.00. Agorrosin.

Bergara-Almen

Lehen mailako infantilak.

Larunbata, 15.30. Ipintza.

► Futbitoa

Arlosteak-Kabia

3. eta 4. posturako.

Igandea, 11.30. Kiroldegia.

Madura-Angiozar

Ligako finala.

Igandea, 12.30. Kiroldegia.

► Eskubaloia

Bergara-Ordizia

Kadete neskek.

Larunbata, 18.00.

Bergara-Hernani

Jubenil neskek.

Larunbata, 19.00.

► Saskibaloia

Bergara-Lasalle

Senior mutilak.

Larunbata, 16.15.

► Pelota

Muruamendiaraz eta Rai / Haritz eta Galrza

Pentekostes-Bergara Hiria afizionatuentzako txapelketako finala.

Ondoren porofesionalak:

Unanue eta Lasa III /

Nagore eta Galarza III

Arteaga eta Astarloa /

Koka eta Oregi I

Larunbata, 16.30

Udal pelotalekua.

BKEko saskibaloia saileko talde nagusiak bihar arratsaldeko 4,15etan bere mailako lehen postua jokoan izango du La Salle talde donostiarren aurka. Horri buruz eta beste gauza batzuri buruz hitz egin dugu Alex Familiar taldeko entrenatzailearekin.

- 22 urte dituzu eta orain arte eskoletako gazteak entrenatzen jardun ondoren, nola baloratzen duzu aurten nagusien taldea zuzentzen egindako lana?

- Hasieran nahiko gogorra da, zu baino nagusiagoak entrenatu behar dituzu eta horrek errespetoa ematen du. Baina taldea oso disziplinatua da eta azkenean jokalariek, eurek, eman didate aurrera jarraitzeko gogoia.

- Bestela, kirol mailan nola joan zaizue urtea?

- Orokorrean oso ondo. Kategoriaz igo gara, baina taldea berria zenez behetik hasi behar izan dugu eta orduan taldearen kalitateagatik gorago maila batean izan behar genuen. Halere, hori kantxan erakutsi behar da eta hasieran ondo ibili ez ginen arren, azkenean emaitza onak lortu ditugu.

- Datorren urterako zela ikusten duzu taldea?

- Mailaz igotzeko taldea indartu egin beharko litzateke, baina mantentzeko ez dut uste arazorik izango dugunik. Batez ere zona barruko jokalaria

on bat izatea izango litzateke eta gero jokalariek konfidantza gehiagorekin jokatu behar dute.

- Zela ikusten duzu saskibaloia Bergaran?

- Duela bi urte senior mailako taldea desagertu egin zen eta asko bajatu zen saskibaloia. Baina gaur egun flojo samar dagoen arren, joan zen urtearekin konparatuz hobekuntzak somatu ditut. Eskola kirolean jokalaria onak daude eta beheko mailetan ere maila onekoak daude. Zuzendaritzetan eta entrenatzen lan egiteko jendea falta

zaigu, egitura sendo bat osatzea falta da. Horretarako jendea behar da...

- Jarraituko al duzu taldea entrenatzen?

- Niri gazteekin lan egitea gustatzen zait. Nagusiak entrenatzeko ikusten dut zerbait falta zaidala.

- Nola konpondu zara arbitroekin ?

- Arbitroekin edo beste taldeko entrenatzaileekin izan dut arazoren bat, gaztegia ikusten nindutela. Baina beno, azkenean jokalariek jokatu behar dute eta moldatu naiz.



"Arbitroekin izan dut arazoren bat gaztegia ikusten nindutela".

"Etorkizuna ona da: Eskola kirolean eta beheko mailetan jokalaria onak datoz"



Ziburutan

Ikastolan genbizenian, noizian behiñ, ikastola atzekaldeko ziburutara joaten giñan, eta erretratu hau hara joandako batek etaratakua da. Bertan, ikastolako 3. maillako neska-mutill kuadrillia gare, 9 bat urtekin, eta Iñazio Arregi zan gure maistrua.

1969. urtian jaiotako taldia ga, eta hemen gela bakar bat agertzen gan arren, ondoko gelakuekin batera, oin-aldala urte bi afai bat ein giñuan.

Ia honek beste bat eitteko gosia sortzen daben!

Ezkerretik eskumara:

1. illaran: Igor Loiti, Kepa Egaña (behera begira), Iker Beistegi, Mikel Elkoroberezibar, Felipe Iñarra, Jabi Moreno, Aitor Larrañaga.

2. illaran: Mireia Gallastegi, Miren Begoña Iriondo, Ana Isabel Garitano, Iosune Gisasola.

3. illaran: Irune Alberdi, Miren Leturia, Maite Aristi, Mikel Zubimendi, Igor Zabaleta, Iñaki Gabilondo, Andoni Larrañaga, Aitor Garitano, Iosu Agirre, Iker Muruamendaraz.

Atze-atzian: Jasone Zabaleta, Iosune Linazisoro, Amaia Mujika, Amaia Muniategi, Amparo Lijó, Joxu Arana, Aitor Ena, Gotzon Del Teso.

Felipe Iñarra

Erretratua: Iñazio Arregi

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

DATOZEN LAU URTEETARAKO ZER ESKAINTZEN DIO

HERRI BATASUNAK

Bergarako herriari?

1. Udal gestioa herriari entzunda eta herritar guztiekiko hurbiltasun eta transparentziaz eroatea, udaletxea herritar denen etxe bihurtuz.

2. Ditugun giza eta diru-errekurtsoak hobeto erabiliz, udal zerbitzu onak prezio egokietan ematea, bakoitzak ordaintzen duena gehitu gabe, herri zorra jaitsiz.

3. Gizartean osasunagatik, langabeziagatik, pobreziagatik, eta abarregatik bazterturik dauden giza-talde eta inguru (auzoak, baserriak...) behartsuenei atentzio berezia ematea, denen bizi-kalitate maila zainduz eta gizarte zuzenago baten alde jokatzuz.

4. Gizakiaren oinarrizko eskubide diren lan eta etxebizitza duin bat izatea guztientzat lortzeko, eta batipat gazteei begira, ahalegin aktibo berezia egitea.

5. Herri bizi, alai eta euskaldunago baten alde, Bergarako kultur adierazpen guztiak suspertzen lagundu eta euskara gure eguneroko hizkuntza izan dadin saiatu.

6. Ingurugiro aldetik Bergara eta bere ingurua babestea, gure lurraldearen eta poltsikoaren kaltetarako liratekeen Maltzaga-Urbina autopistaren edo Abiadura Haundiko Trenaren ordez, inguruko herrieekin hobeto komunikatzeko proposamen egokiak eginaz.

7. Zenbait giza-talderen (gazteen, emakumeen, jubilatuen...) premia bereziei hurbileko erantzun laguntzailea ematea.



MAITE
ARISTEGI



JESUS MARI
GARITANO



AITOR
ARANZABAL



MIKEL
EGUREN



ANE MIKEN
OLABARRIA



JOSE RAMON
ETXEBERRIA



AGURNE
BARRUSO



IÑAKI
GABILONDO



ROBERTO
ARANZABAL




MARGA
LOPEZ



XABIER
ARREGI



IÑAKI
ARIETALEANIZ



JOSE LUIS
ARREGI



KONTXI
OTXOA



XABIER
LABAIEN



GARBIÑE
GARCIA




JUAN DANIEL
KORTABARRIA



JULIO
EZENARRO




OHIANA
BERISTAIN



JOSU
GOENAGA

bozkatu

HERRI BATASUNA



JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.